



Ata Pank eta Ate Punky DESIOA

Bernardo Atxaga
Mikel Valverdearen marrazkiak

Mila gau saila, 12
2021. urtea - 64 or. - 17x24 cm

Paper-azala: 978-84-9172-254-0 - 9,90 €

Azal gogorra: 978-84-9172-255-7 - 13,50 €

Udako arratsalde beroa zen, eta Ata Pank eta Ate Punky asperduriak jota zeuden beren patioan, zer egin ez zekitela. Halako batean, buruak altxatu eta zerura begira jarri ziren, ea han zerbaitez bazen. Alferrik. Han ez zen ezeren arrastorik.

—Non dira *helikonteroak*, Ata? Ez al zuten gaur pasatu behar? –galdetu zuen Ate Punkyk. Helikonteroari *helikontero* esaten zion berak.



Bernardo Atxaga
(Asteasu, 1951)

Jose Irazu Garmendia da bere benetako izena. Idazle-lanetan hasi zenetik, beti izan du gogoan haur eta gazte literatura. Titulu batzuk aipatzearen: *Ramuntxo detektibea*, *Chuck Aranberri dentista baten etxean*, *Asto bat hypodromoan*, *Jimmy Potxolo*, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, *Sara izeneko gizona*, Markoniren eta Bambuloren serieak, Xola txakurrarena...

Azken honen ingelesezko bertsioa (*The Adventures of Shola*) 2013ko haur-libururik onenen artean hautatu zuen *The Independent* egunkariak, eta Marsh Award saria ere irabazi zuen 2015ean.

Behi euskaldun baten memoriak, hamahiru hizkuntzatarara itzulia, haur eta gazte literaturaren historiako titulurik onenen artean agertu zen 1001 Children's Books You Must Read Before You Grow Up katalogoan (Julia Eccleshare, 2009).



Mikel Valverde

Gasteizen jaio zen. Arte Ederretan lizentziatu zen eta komikiaren alorrean argitaratu zituen bere lehen lanak.

Bernardo Atxagaren *Xolak badu lehoien berri* izan zen haur eta gazteentzako ilustratu zuen lehenengo literatur lana. Eta haren ondotik beste hainbat liburu eta bilduma ilustratu ditu, hala nola Xola, Bambulo, Jonas, Garmendia edo Sabueso Orejotas.

SM Fundazioaren Nazioarteko Ilustrazio saria irabazi zuen 2005ean, *Paula en Nueva York lanarekin*. Liburu hura ilustratu eta idatzi, bi-biak egin zituen. Une hartatik aurrera ilustratzaile eta idazle lanetan dabil haur eta gazte literaturaren alorrean.

Euskadi saria jaso zuen 2017an Literatura lanaren ilustrazioaren sailean.

